

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

IFK/  
P2007/  
300A/  
TEER  
01700  
0157  
10655  
2011-  
06

## **MOZIOA, GURE HIRIKO MERKATARITZA GUNE HANDIEN INGURUKO AURREIKUSPENA DELA ETA**

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, gure hiriko merkataritza gune handien aurreikuspena dela eta, Udalbatzan azter dadin. Mozioa joan den azaroaren 6ko batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Auzitegi Nagusiak irailaren 3an emandako epaiak erabat deusez jo zituen Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Merkataritza Ekipamenduak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren xedapen batzuk, merkataritza ekipamenduen gehienezko azalera mugatzen baitzuten. Era berean, erabat deusez jo zituen Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Testu Bateginean plan sektorialaren xedapenak jaso edo aplikatzen dituzten xedapen guztiak.

Murrizketak edo mugak jartzeko erabakia behar beste ez arrazoitu izana da Auzitegi Gorenak jarraituriko oinarri nagusia. Halere, onartzen duenez, izan daiteke horrelako jarduerak arautzeko aukera, baina ez ekonomiaren ikuspegitik, baizik eta hiri ingurunea eta ingurumena babestetik begiratuta; jakina, aztertu beharreko kontua da hori.

Epai horrek gure hirian izango dituen ondorioez eta irismenaz kezkatuta, idazkari nagusia agertzeko eskatu genuen urrian. Informazio zabala eskaini zuen batzordean idazkari nagusiak epaiaren ondorengo egoeraz. Epaiak zehazki nola eragingo duen galdetuta, adierazi zigun horretarako aztertu egin behar zela Donostian zein diren hirugarren sektoreko azalera, eraikigarritasuna agortua izan gabe, laugarren mailako jarduerak har ditzaketenak.

Ondoren, informazio hori Hirigintza Sostengagarriko Atalak prestatzea eskatu genuen. Kontuan hartuta epai horrek kezka sortu duela Donostiako hainbat taldetan, analisis plano batean egiteko eskatu genuen.

Alkateari horri buruzko interpelazioa egin genion, eta hark erantzun zigun ez zutela plana prestatu eta ez zutela deialdirik egin Planeamenduko, Ingurumeneko eta Merkataritzako aholku kontseiluetarako, ez eta Gizarte Kontseilurako ere, eztabaida zezaketen erabakirik ez zutela eta.

Dena dela, gobernu taldeak onartutako aurrekontu proiektuan, 7.000.000 euroren diru sarrerak proposatu dira Garbera 18.000 m<sup>2</sup> inguru handitzeko; hau da, hiri ereduari buruz hitz egiten ari gara, eta gobernu taldeari ez zaio bidezkoa iruditzen aholku kontseiluak biltzea, alde

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

IEK/  
P2007/  
300X/  
01700  
1000  
2011-  
06

aurretik azter dezaten halako erabaki edo proposamenek hirigintzan, ingurumenean, mugikortasunean edo merkataritzan nola eragingo duten.

Horiek hala, hauxe da EH Bildu udal taldeak egiten duen

### **KONTROL MOZIOA:**

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari egin dezala plano bat hilabeteko epean, garbi ikus dadin hirugarren sektorerako 25.000 m<sup>2</sup>-tik gorako aurreikuspena duten eta eraikigarritasuna agortua ez duten hiriko zer eremu edo aldetan dagoen laugarren kategoriako establezimenduak jartzeko aukera.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari, merkataritza gune handiei buruzko edozein erabaki hartu aurretik, aholku kontseiluetan azter ditzala (Planeamendua, Ingurumena, Mugikortasuna, Merkataritza...), aholku emateko eta parte hartze aktiboa izateko eginkizunak bete ahal izan ditzaten, hartarako sortu zirenez gero.
- 3.- Era berean, gobernu taldeari hertsatuki eskatzen dio lehenengo puntuan adierazitako plano hori egin ostean aholku kontseiluak dei ditzala, beren iritzia eman eta har daitezkeen neurrien gaineko proposamenak egin ahal izan ditzaten.

Donostia, 201eko azaroaren 20a

Ricardo Burutaran Ferré,  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia